

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2011ko azaroaren 29a. VIII. urtea. 2.315. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Mapa toponimikoa banatzen ari da Villabonako Udala

2009an hasi ziren Amasa-Villabonako garai bateko leku izenak berreskuratzeko lanean **02**



Etxeetara iritsiko da datozen egunetan, mapa toponimikoa. A. IMAZ



MAL ENANDES

→ **Zeberio II.a eta Ion finalerako bidean.** Elduaingo Patxi Zeberriok geraz eta gertuago dauka erremonteko binakako txapelketako finala. Ion bere bikotearekin batera jokatu zuen finalerdietako lehen partida asteburuan, eta erakustaldia eskaini zuten, azkenean 40-21 irabazi zietelarik Matxin III.ari eta Urrutiari. **06**

Ibarrako lau taldeak ahul ibili dira Euskal Herriko txapelketan

Mutilen Ibarra Ak hirugarren egin zuen goma gaineko sokatira lehiaketan, eta Ibarra Bk, seigarren; nesketan Ibarra Ak laugarren egin zuen, eta Ibarra Bk, aldiz, bosgarren **07**

Andoni Agirre
Gipuzkoa Zero Zabor-eko kidea

«Asko birziklatuz gero, zabortegi edo erraustegi beharrik ez dago»

Agirrek hitzaldia emango du, gaur, Lizartzan

Elkarrizketa 03

Urgutxirekin topatu du Carlos Peñak Asturiasko Sella ibaia

Igerilari tolosarrak jaitsiera entrenamendu bezala hartu du; Herrialde Katalanetan du hurrengo erronka **07**

Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorriaren azken zatia, hastear

Gipuzkoako Foru Aldundiak 350.000 euro inguru bideratu ditu lan hauek egitera **03**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maitte

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Mikropigmentazioaren PROMOZIOA

2011ko abenduaren 20a arte

- Bekainak — % 20eko deskontua
- Ezpainak — % 20eko deskontua
- Begiak — % 20eko deskontua

Bi saiorekin hirugarrengoa doan



Amasa-Villabonako Udala atzo hasi zen herriko mapa toponimikoa herritarrei banatzen. 2009. urtean hasitako ibilbidearen emaitza, hortaz, etxeetara iritsiko da datozen egunetan.

Garai bateko izenak berreskuratuz

Rebeka Calvo Amasa-Villabona

Etengabe belaunaldiz belaunaldi pasatzen joan den informazioa da toponimia», azaldu zuen Imanol Goikoetxeak, Ikermap enpresako kideetako batek, pasa den astean Villabonako udaletxean egindako aurkezpenean. Aurkezpen berezia izan zen, izan ere denborarekin galduz doan ukituezi-na den ondarea gordetzen haste-ko ibilbide baten amaiera zen, mapa toponimikoan gorpuzten dena, hain zuzen.

Atzera egin behar da hastape-netara iristeko. Amasa-Villabonako Udala 2009an hasi zen herri-ko garai bateko izenak berresku-ratzeko lanean. Udalak orduan «gure herriko kultur ondarea berreskuratzen eta herritarren artean zabaltzen» lan egingo zuela azaldu zuen, eta horren haritik Amasa-Villabonako leku izenak berreskuratzea «zeregin garrantzitsua» zela azaldu zuen.

2009an hortaz, Ikermap enpre-sari mapa toponimikoa osatzeko lana eskatu zion, eta lan horren lehen emaitza udaberriari aurkeztu zuen jendaurrean. Orduan erakusketa modukoa jarri zuten, jasotako leku izenekin, eta herritarren ekarpenak jaso ostean, aurkeztu berri duten mapa toponimikoa osatzea lortu dute. Hain justu, atzotik herritarren artean banatzen ari diren mapa.

Galder Azkue alkateak azaldu bezala, hortaz, udala orain bi urte hasi zen lanean «kale izenen eta herriko bazterren izenak berreskuratze aldera, eta baita hauen erabilera sustatzeko». «Ikermap enpresari eman genion lan hori egiteko ardua, eta lan hori egin eta gero, lan horrek eskuarte-dugun mapa ekarri du», gaineratu zuen.

Leku izenak «era egokian»

Mapa toponimikoa osatzearen helburu nagusia, «herriko izen hauen erabilera sustatzea» da Azkueren hitzetan. Horrela belau-



Villabonako Udala atzo hasi zen mapa toponimikoa herritarren artean banatzen. A. MAZ

naldi berriek ere «jakin dezaten garai batean lekuek zuten izena, eta zein zen leku hauen erabilpen egokia. Udala ere saiaturiko da leku horien izena era egokian erabiltzen eta sustatzen teknologia berrien bidez».

Horiek horrela, alkateak herritarrei eskerrak eman nahi izan zizkien: «Prozesu parte hartzaile baten bitartez osatu da mapa hau, eta ondorioz, Amasa-Villabonako herritarrei eskerrak eman behar dizkiegu, beraiek gabe izen hauek galduta egon ahal ziren eta».

Transmisioa

Ikermap enpresako Imanol Goikoetxeak, bere aldetik, azken urteetan informazioa galtzen joan dela aipatu zuen: «Gauzak asko aldatu dira azken urteetan, eta nolabait, garai batean ematen zuten belaunaldiz belaunaldiko transmisioa eten egin da, leku izenak ia galtzeraino».

«Mapa hau adostutako ondarea dela esan daiteke. Ondare hori benetan ezagutzen duten pertsonak geroz eta gutxiago dira, eta geratzen garenok, askotan kalekumeak, toponimo hori hartu eta berezkoa duen zonaldea baino gehiago zabaltzen dugu. Toponimo bat hartu, eta izugarri zabaltzen dugu. Aldiz, kalean toponimo berriak sortzen ditugu; kaleak, kale kantoiak... Jende gehiago bizi da herrietan eta argota ere sortzen dugu. Era berean, tradiziozko toponimia galdu dugu», gaineratu zuen.

Goikoetxeak esan bezala, geroz eta gutxiago dira garai bateko lekuen izenak gogoratzen dituztenak, eta datu bezala aipatu zuen mapa egiteko elkarrizketatutako 50-60 pertsona ingurutik erdia besterik ez zirela berriemaille izan, «orain dela 50 urte 200 eta 300 pertsona ingururen testigantza egokiak izango genituen», azaldu zuen.

«Ia-ia notario lana»

Toponimia lanari dagokionez, Goikoetxeak egindako lana «ia-ia notario» zeregina izan dela aipatu zuen.

«Ikerketa dokumentala egin dugu batetik; herriko artxiboa hustu dugu, bete batzuk bisitatu... Ikerketa dokumental horretan oinarritzko ahozko azterketa toponimikoa egin genuen, eta honen ondorioz 1.200 toponimo inguru atera ziren», aipatu zuen Ikermapeko kideak.

Lan hori egin eta gero, izenak arautzen hasi ziren. «Horrek ez du esan nahi ahozko forma baztertzen dugunik, baina egia da idatzizko pixka bat aldatzen dela. Baserriekin ere jendea pixka bat haserretu da, 'nola jarri diozue izen hori!', esanaz, baina modu batera esanda ere, horri idatzizko forma landua eman behar zaio. Biek jarraitu behar dute bizirik», gaineratu zuen Imanol Goikoetxeak.

Laster hasiko dira egiten Asteasu-Zizurkil bidegorriko azken zatia

Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko du dirua; 4 hilabeteko epea izango dute lanak bukatzeko

R.C.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorriko zati bat berritzen lagundu-ko du.

«Bizikletaren erabilera bultzatzeko eta bidegorri sare egokia osatzeko politikarekin» jarraitzeko beste diru partida batzuetan aurreztea lortutakoa aprobetxatuko dutela azaldu du.

Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorriaren arteko 1,725 eta 2,275 kilometro puntuen artean egingo dute, bidearen zati berria. Bere garaian, aipatu bidegorria egin zenean bi kilometro puntuen arteko zatia egin gabe geratu zen, eta orain zati hori egiten lagundu-ko du Foru Aldundiak.

611,54 metroko bidea

Bidegorriak 611,54 metro izango ditu, eta 3 metroko zabalera izango du.

Zabale ibai-ko zubi baten ondoren hasiko da bidea, eta behin ibai-ko gurutzatuta, iparralderuntz, ibai ondotik joango da, ibilbide berriko 0,110 kilometro punturaino.

Leku horretan ekialderantz egingo du bideak Asteasu ibai ondotik. Ibilbidean 7 metro luzeko egurrezko pasabide bat izango da, Burrusti erreka gainditu ahal izateko. Ibilbidea berritutako zubi baten ondoren bukatuko da, Bengoetxea zerrategitik gertu, eta jada eginda dagoen bidegorriarekin lotuko da. Bidegorri osoa argiztatuta egongo dela ere jakinarazi dute.

Bidegorri zati hori egiteko lanak 341.612 eurogatik esleitu dituzte eta enpresak 4 hilabeteko epea izango du lan guztiak egiteko.

CITROËN C4 BERRIA
POSITIVE POWER

Jarri gaitzazu:

PLAN REMOVE + CITROËN
HILABETE HONETAN
JASO ITZAZU

3.000 €
ZURE IBILGAILU ZAHARRARENGATIK.*

GRUPU TEKNOLOGIA

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIGUNEA Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

Gipuzkoako Kantu Txapelketako lehen hiru sari Alegiara joan dira

Bakarkakoa izan ezik, bikotekakoa, taldekakoa eta sormen lanaren lehen sariak eskuratu dituzte alegiarrek

Eneritz Maiz Alegia

Amaitu da aurtengo Gipuzkoako Kantu Txapelketa. Igandean izan zen finala Donostiako Antzoki Zaharrean, eta hiru sari alegiarrek eskuratu dituzte.

Bikoteka Nora Salvador eta Marta Olea izan ziren onenak, *Izana, dena, geroa* abestiarekin. Taldearen saria, Alegiako Keiran taldearentzat izan zen, eta sormen lanaren saria ere, Keiran taldekoen *Arnasten* abestiarentzat izan zen. Bakarkako lehen saria,



Keiran taldea, igandean, Antzoki Zaharreko taula gainean. HITZA

berriz, Jon Anza donostiarrak eskuratu zuen.

Saio bikaina izan zela azaldu dute antolatzaileek. Aretoa guztiz bete zen, eta sarrerarik gabe gelditu ziren. Bertaratu txalorak eta animoak ugari izan ziren

parte hartzaileentzat, aretoan giro bikaina sortuz.

Sariak banatu bitarteko denbora, Kantu Txapelketan parte hartu zuen, eta gaur egun ezagun egin den Lain taldearen disko berriko lanak entzunez igaro zuten.

Andoni Agirre ◊ Gipuzkoa Zero Zaborreko kidea

Gaur 20:00etan Zaborra: guk sortu, guk kudeatu hitzaldia izango da kultur gunean; Oñatiko Zero Zabor taldeko kideak etorriko dira hitzaldia ematera. Zaborraren eboluzioa eta arazoak azalduko dituzte.

«Zero zabor izatera iristea da gure helburua»

E. Maiz Lizartza

Lizartzako Kultur Astean, gaur 20:00etan *Zaborra: guk sortu, guk kudeatu* hitzaldia izango da Gipuzkoa Zero Zaborren eskutik. Zaborraren inguruan interesa duen edonork bertara joateko aukera izango du.

Zaborraren gaia pil-pilean dago. Zer da hitzaldian azalduko duzuen?

Gaur egun zaborraren inguruan arazoak azalduko ditugu. Zaborregiak gainezka ditugu, eta Europako aginduarekin 2015. urterako itxita egon behar dira. Honen aurrean planteatzen diren alternatibak aurkeztuko ditugu. Orain artean erabili diren sistemen berri ere emango dugu, hau da, hasiera batean kalean uzten zen zaborra; gero, edukiontzia iritsi ziren; atzetik, kolore ezberdinetakoak, ... Zaborraren garapena azalduko dugu, eta orain zaborregiak gainezka daudenean, Gipuzkoarako zein alternatiba planteatzen diren azalduko ditugu.

Bosgarren edukiontzia edo atez atekoak ariko zarete?

Ez gara bi modu horietan zentraltuko, eta ez dugu konparaketarik egingo. Modu bakoitzak zer dakarren azalduko dugu. Batzuek zaborregiari erraustegia jartzen diote alternatiba bezala, eta beste batzuek, zaborregien eta erraustegien aurrean, asko birziklatzea jartzen dugu. Asko birziklatuz gero, ez dago zaborregi edo

erraustegien beharrik, ez behintzat orain artean ezagutzen ditugun tamainakoak bezalakoak.

Zer da Zero Zabor filosofia?

Zero Zabor mundu mailako mugimendua da. Lehenengoa, erosketak egiterakoan zaborra murriztea, eta gero, zabor guztia birziklagarri izatea litzateke. Hitzak dioen moduan, zero zabor izatera iristea izango litzateke helburua, eta horretarako bidea bilatzea.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukalde, bi autorentzako garaia, txokoa, lorategia eta trasterlekua ditu. Interesatuek, 678 26 76 57 telefono zenbakira deitu behar dute.

LANA

■ **Emakume euskalduna.** Espiritualki eta konfidantzazko emakume euskaldunak, etxeko lanak egin edota edadeko pertsonak nahiz haurrak zaintzeko bere burua eskaintzen du. Autorea badauka. Interesatuek, deitu 605 72 02 51 telefono zenbakira.

→ Laburrak

Berastegiko A-15erako sarbidea itxita egongo da

BERASTEGI ◊ Gipuzkoako Foru Aldundiak Berastegin, A-15ean, eurite handiak izan zirela eta, luiziak izateko arriskua ikusi du. Horregatik, Berastegitik Andoainera norabidean A-15era sartzeko bidea itxi du. Sarbide hori itxita egongo da 2012ko urtarrilaren 9ra arte. Ondorioz, Andoainera A-15 autobidea erabilita joan nahi dutenek Leiztan hartu beharko dute A-15a, hau da, Leitzako A-15eko lotuneraino GI-2130 errepidetik joan beharko dute.

Aurrera Kirol Elkartearen loteria salgai jarri dute

LEITZA ◊ Aurrera Kirol Elkarteak, Gabonetako loteria jarriko du salgai gaurtik ostegunera bitartean. Bazkideek 18:00etatik 20:00etara izango dute erosteko aukera. Gaur eta bihar, bazkideko bi partizipazio salduko dituzte, eta abenduaren lehen, nahi adina erosteko aukera izango da, bukatu bitartean.

Odola emateko aukera izango da, gaur

IKAZTEGIETA ◊ Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak gaur ikaztegieta izango da, eta odola emateko aukera izango da kiroldegian. 19:00etatik 21:00etara egongo dira liburutegian, eta odola eman ostean, indarrak erreperatze mokadutxo emango dute.

'Gaitz arruntak' hitzaldia izango da, bihar

ALEGIA ◊ Alegiako kultur astearen baitan, bihar, asteazkena, 19:30ean Julian Bereziartua medikuaren hitzaldia izango da. Gaitz arruntaren inguruan hitz egingo du kultur etxean. Ostegunean, berriz, ordu eta leku berean, *Gipuzkoaren sorrera* hitzaldia izango da Nabaralde taldearen eskutik.

'Mari, euskaldunen jainkosa' hitzaldia, EPAn


TOLOSA ◊ Tolosako EPAn, abenduaren 2an, *Mari, euskaldunen jainkosa* hitzaldia 15:00etan izango da. Joxe Ramon Zubimendi izango da hizlaria, eta hitzaldia euskaraz izango da.

Irudia ◊ Irura



LEHEN AZKEN OSTIRALA


Ostiralean Iruran lehendabiziko aldiz euskal presoak Euskal Herriaren aldeko kontzentrazioa egin zuten. «Oso arrakastatsua» izan zela argitu dute. «60 heldutik gora» elkartu ziren *Egin dezagun bidea, euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. Irurak bere bidetari ekin dio, eta errealitate bihurtu bitartean hileroko azken ostiraletan elkartuko direla adierazi dute. «Bidea gurekin batera egitea aukeratu dutenei eskerrak eman dizkiegu, eta datozenetan parte hartzea gonbidatzen ditugu irurar guztiak» azpimarratu dute. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna



INDARKERIA MATXISTA SALATU DUTE

Tolosako Udalak eta emakume artisten taldeak Indarkeria Matxista salatzeke hainbat ekimen burutu zituzten Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean. Herri guzietan tren geltokietan tunela zutuz margotu zuten eta kartelak jarri zituzten bertan. Horrez gain, bakarrizketak, puin kontaketak, muralak margotu eta film laburrak ikusi zituzten.

«kalea eta gaua emakumeenak ere badirela» aldarrikatuz. Ekitaldien ondoren, Bilgune Feministak delitu zuten elkarretaratzarekin bat egin zuten. Trianguloa plazan 60 lagun inguru elkartu ziren, Indarkeria Matxistaren aurka Instituzioetan «borondate politikorik» ez dagoela salatuz. Irurari ere elkarretaratzeara egin zuten. ELIETA

Alkiza



FRONTOIA BERRITZEN

Alkizako frontoia berritzearen bigarren zatia auzolanean burutzen ari dira. Larunbatean, zehazki, frontoaren kanpoko aldean trukundu eta harmailak berritu zituzten. Lanak amaitu ondoren, harmailaketa-koa egin zuten. 20 herritar inguru izan ziren lanean. Udaltetik azaldu zuten, beste asteburu batzuetan ere arituko dira obrak egiten auzolanean. Esaterako, egurrezko eserlekuak jarriko dituzte. LAGUNA

Ikaztegieta



IBIUR URTEGIA, BARRUTIK

Ikaztegieta kultur ekitaldien barruan, Ibiur urtegia bistatu zuten larunbatean. 25 lagun inguru izan ziren bisita gidatuan, eta urtegiaren forma eta araztegia ikusi hai izan zituzten barrutik. LAGUNA

Tolosa



TITIRIJAIAK EGIN DIO BIDEARI

Aranburu jauregiako erakusketaren inaurazioa egin ondoren, hartu du martxa aurtengo Titirijal jaialdiak. Inaugurazioan, besteak beste, Ibañeta Tolosako alkatea, Ana Arretxe Ekinbide Etxeko lehendakaria, Pierre Alain erakusketaren koordinatzailea eta Cristina Fischer Madriliko Suitzako enbaxadore kultur agregatua izan ziren. Suitzara lehoar erakusketaren bistatzaileak izango dira, Pierre Alain beraren eskutik. Bistak gaztekeraz egingo dira, eta astean zehar 17:00etan, eta asteburuetan 12:00etan eta 17:00etan izango dira. LAGUNA

Amasa-Villabona eta Asteasu



MENDI ASTEAK BUKATU DIRA

Amasa-Villabonako Aizkardi mendi elkarteak antolatutako duen mendi asteari amaiera eman diote mendi ibilaldiarekin (goko argazkien). Astebete aurrerago, Asteasuko Sagain mendi elkarteak ere mendi ibilidiekin eta festarekin bukatu zuten berea. ELIETA

Larraul



ARIZETAREN IDIEN ERAKUSTALDIA

Larraulgo kultur astearen barruan, Martin Arizetaren idiei paretan erakustaldia egin du. San Bartolome egunean egitekoa zen idia proba bertan beheara geratu zen orduan, eguraldi txarra zela eta. Kultur astean egitea pentsatu zuten, eta larunbatean eguraldiak lagundu du. LAGUNA

Egin HITZaren harpidedun abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

MAHALA ekoizlearen produktu sorta hau

OPARI

hitza

Harremanetarako: 902-82 02 01 | harpidetza@hitza.info

Bertako informazioari, bertako produktuak

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTIZESIONARIA
 San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel: 943 650 337 / Fax: 943 652 938 • hitza@tolosa.redpeugeot.com

Kirolak >

↓ Kirol emaitzak

ARETO FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

9. Jardunaldia

Laskorain-Concepto Egile 2-2

Sailekapena

1. Ebrosala	22p.
2. La Bastida Atenea	19p.
3. Zierbana	17p.
9. Laskorain K.E.	11p.

HIRUGARREN MAILA

10. jardunaldia

Egintza-Zarautz	4-1
Bilbo-Ibarra	3-4

Sailekapena

1. Ibarra	27p.
2. Sestao	23p.
3. Gora C.D.	17p.

12. Egintza Transportes

Lakuntza 11p.

EUSKAL LIGA

10. jardunaldia

Lagun Onak-Hirukide	6-1
Eskolapioak-Kurutziaga	6-4
Tolargi-UPV Araba	5-1

Sailekapena

1. Tolosala Hirukide	27p.
2. Mamarigako FS	24p.
3. Tolargi	19p.
9. Eskolapioak	12p.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA

12. jardunaldia

Tolosa-Beti Gazte 2-0

Sailekapena

1. Anaitasuna	26p.
2. Berio	22p.
3. Pasaia	22p.
4. Tolosa	22p.

ERREGIONAL PREFERENTEA

12. jardunaldia

Lehen taldea

Beti Onak - Tolosa B 2-0

Sailekapena

1. Touring	28p.
2. Ostadar	27p.
3. Tolosa B	26p.

Bigarren taldea

Intxurre-Lagun Onak 0-1

Sailekapena

1. Soraluze	25p.
2. Anaitasuna B	21p.
3. Lagun Onak	20p.
16. Intxurre	8p.

SASKIBALOA

Lizuan.com 59

Bidebide Ibiza 76

Sailekapena

1. Bide Bide Ibiza	7-2
2. Seky.es	6-3
3. Santurtzi	6-3

PILOTA

ERREMONTEA

Binakako Txapelketa

Finalerdietako lehen partida

Zeberio II-Ion 40

Matxin III-Urrutia 21

SOKATIRA

Euskal Herriko 4X4 Goma

Gaineko Txapelketa

260 kilotan

1. Badaiotz B	7puntu
2. Badaiotz A	6p
3. Sakana	5p
4. Ibarra A	4p
5. Ibarra B	3p

300 kilotan, A multzoa

1. Sokarri A	7puntu
2. Amaiur A	6p
3. Ibarra A	5p

300 kilotan, B multzoa

1. Sokarri B	7puntu
2. Amaiur B	5,5p
6. Ibarra B	1,5p

DUATLOIA

MALLABIAKO DUATLOIA

1. Jon Ergin	01:43:45
2. Luis Mari Urizar (Villabona)	01:48:03

4. Eneko Gurrutxaga (Villabona) 01:49:02

10. Liher Etxeberria (Villabona) 01:58:04



Zeberio II.a eta Ion, aurrean, eta hauei begira Urrutia. Azken honek ez zuen bere egunik onena izan. MAIALEN ANDRES

Zeberio II.a eta Ion binakako txapelketaren finalerdiak partida batera daude

Finalerdietako lehen partidak 53 minutu iraun ditu, eta Urrutia eta Matxin III.a 21 tantotan gelditu dira

Erredakzioa EIduain

Patxi Zeberio elduaindarrak binakako txapelketaren finala partida batera dauka. Finalerdietako lehen partidari, Zeberio II.ak eta

Ionek erakustaldia eskaini zuten Galarretan, iragan larunbatean. Finalera sailkatzeko, bi partida irabazi behar dira, eta gipuzkoarrek lehen puntua erraz eraman zuten etxera. Ionen lana azpimarratu behar da, Urrutia handia aurrean izanagatik, jaun eta jabe izan baitzen lehen tantotik. Patxi Zeberio ez zen atzean gelditu, eta partidak aurrera egin ahala, tantoak pilotzen hasi zen elduaindarrak. Amaieran, bi pilotariak hamauna tanto eskuratu zituzten.

Galarretan ikusitakoaren arabera, ez zen Matxin III.a eta Urrutiaren partida izan. Markagailuak 5-5 erakusten zuenean, partida lehiatua izango zela zirudien, baina Urrutiak ez zuen bere lekua aurkitu; ez zuen agindu. Matxin III.aren lehen finalerdia izaki, presiopean aritu zen, eta agian gehiegi nabaritu zuen pisu hori. Horri, bere atzelariaren laguntza eskasa gehitzen baldin bazaio, azken markagailuari begiratzea besterik ez da falta: 40-21.

Laskorainek binako berdinketa lortu du Concepto Egileren aurka

Ligako aurrekonturik handiena duen taldearen aurka bolada txarrari amaiera eman diote horitxoek

Unai Barriola Tolosa

Gaur egun, Gipuzkoako areto futboleko ikus daitekeen mailarik altueneko norgehiagokaz gozatu ahal izan zuten larunbat arratsaldean Usabalera gerturatu ziren ehunka zaleak. Aurrez aurre, diru txanponen epelean sortutako Concepto Egile indartsua eta elkarlanean arituz, ilusioz gainekza dabilen Laskorain.

Bata bestearen aurka 2.B mailan lehen aldiz aritu arren, elkar ondo ezagutzen duten bi talde izan genituen 40 minutuz lehia. Maila berrira igo berritan, proiektu eta jomuga ezberdinak izan arren, hiru puntuak eta Gipuzkoako areto futboleko aginte maki- la izan ziren jokoa Usabaleko oholtza gainean.

Epaileek txilibituari eragin zienean, kanpotarrak hartu zuten baloia jabetza, eta nagusi izan ziren lehen minutuetan. Dena den, larunbatean, 23 urte bete zituen Endikak sekulako maila erakutsi eta bata bestearen atzetik zapuztu zituen Elgoibarkoen aukera denak.

Minutuak pasa ahala ordea, Laskorainek hasierako beldurak albo batera utzi eta jokaldi politak osatu zituen. Horieta batean, Murgi mirakusak parabola perfektu batez aurkariaren defentsa lerroa gaunditu eta bigarren zutoinean agertutako Camiok gol ederra sartu zuen bote lasterrean.

Emaita honekin amaitu ziren lehen 20 minutuak, baina atsedendititik bueltan, defentsan intentsitate nahikoa ipini ez eta markagailuari buelta eman zion Concepto minutu gutxitan. Pase ederrak lotutako jokaldi batean lehendabizi, eta penalti argi bat gauzatuz ondoren.

Egoera honek kinka larrian utzi zituen Laskorain Ikastolako-

ak ondorengo minutuetan. Aurkariak, ordea, ez zuen asmatu partida erabakitzen eta Javiren mutilak pixkanaka lerroak aurreratu eta partidaren bila joan ziren. Erabaki honen ostean, norgehiagoka asko ireki zen eta aukera garbiak izan ziren bi atean, baina asmatu zuena talde horitxoan izan zen; Camioren pase bati urrea atara baitzion Beñatek buelta erdian baloia sareetara bidalitz.

40 minutuek ez zuten gehiagorako eman eta puntu banaketarekin amaitu zen lehia. Elkarririk bosetokoa eman eta zaleen txaloen artean sartu ziren aldageletara bi taldeak.

Ligako aurrekonturik handienetakoa duen talde baten aurka puntu garrantzitsua eskuratu, bolada txarrari amaiera eman eta datorren asteko bidaia luzeari gozoko ekiteko animoekin amaitu zuten Javi delegatuak, Javi eta Aitor prestatzailak, eta Endika, Beñat, Gil, Murgi, Camio, Joniko, Ekhi, Txiki, Etxeberria, Mikel eta Aratz jokalariek.



Ibarrako nesken bi taldeak, tiraldien amaieran. A. MAZ

Ibarrako sokatira taldeak etxean aritu dira lehian, Euskal Herriko txapelketan

Nesken bi taldeak 260 kilotan aritu dira, eta mutilenak 300ekoan; bigarren jardunaldia igandean izango da

Asier Imaz Ibarra

Euskal Herriko Goma Gaineko 4X4 Sokatira Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu zen larunbatean Ibarra. Etxeko lau talde egon ziren bertan, bi mutilenak eta bi neskenak. Azken hauek, 260 kilotan aritu ziren, eta mutilak 300 kilotan. Talde ugari elkartu zirenez Belabieta kiroldegian, luze joan zen lehen jardunaldia; 17:00etatik 20:00etara.

Mutiletan hirugarren

Mutiletan bi multzo egin zituzten, guztira 14 talde aritu baitziren lehian. A multzoan, Ibarra A zegoen, eta B multzoan Ibarra B. Ibarra A bi faboritoen atzetik gelditu zen, hau da, hirugarren pos-



Belabieta kiroldegian jende ugari elkartu zen etxeko lau taldeak ikusteko asmoz. A. IMAZ

tuan. Ibarra Bn, tiralari gazte eta hasiberriek izan zuten etxean aritzeko aukera. Kuartangoren aurka tiraldi lehiatua jokatu zuten, berdinketa eskuratuz. Hortik aurrerakoa, ikasgai bezala hartu behar da. Azken sailkapenean, Kuartangorekin batera gelditu ziren seigarren postuan.

Nesketan parean

Ibarrako bi taldeak nahiko paretsu ibili ziren 260 kilotan. Ibarra A laugarren gelditu zen, eta Ibarra B bosgarren. Maila honetan, Badaiozko bi taldeak nagusi izan ziren, esperientzia handia dutela erakutsiz. Hirugarren postua Sakanako taldearentzat izan zen.

Euskal Herriko txapelketaren bigarren jardunaldia, igande honetan jokatu da Berriozarren. Lehen sei taldeek, finala jokatzeko txartela lortuko dute bai nesketan eta baita mutiletan ere. Hauek izango dira aurtengo denboraldian 4X4ko modalitatean jokatu den azken tiraldiak.

Fernandezen Telefonica ontzia lehen postuan aurkitzen da

Volvo Ocean Race probaren lehen etapa irabazi du ibartarraren taldeak, bigarren ontziari 16 ordu ateraz

Erredakzioa Ibarra

Xabi Fernandez ibartarra Cabo Hiriari aurkitzen da, Volvo Ocean Race probaren lehen etapa amaitu ostean. 21 egun egon dira itsasoan Telefonica ontziko gizonak, eta bigarren ontziari 16 orduko aldea atera die. Garaipen honi esker, ibartarraren taldeak 31 puntu lortu ditu.

Orain, Hegoafrikan atsedean hartzea tokatzen zaie, bertan hasiko baita bigarren etapa abenduaren 11n. Cabo Hiritik abiatuko dira, Abu Dhabira iristeko asmoz. Proba honetako partaideek guztira bederatzita etapa egin beharko dituzte.

Irudia Tolosa



CARLOS PEÑA ETA SELLA IBAIAREN ARTEKO URTEROKO ZITA

Carlos Peña tolosarra Asturiasen ibili da asteburu honetan. Sella ibaiarekin urtero egiten du zita, eta aurtengoan ur gutxirekin topatu du. Igerilariaren esanetan, zati batzuetan ukondoarekin harriak ukitutuz ibili behar izan

du, baina hala eta guztiz ere, ibaia jaistea lortu du, Arriondaseko zubitik Ribadesellara. Peñak entrenamendu moduan hartu du asteburuko erronka hau, izan ere, abenduaren 17an eta 18an Herrialde Katalanetara

joango da. Bertan, Castelldefells-eko ubide olinpikoa zeharkatu du 24 orduan, gelditu gabe. Kilometro batego ubidea honetan, TV3ren Maratoi Fundazioaren alde ariko da igerian. HITZA

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**LANDER
ZABALZA
BEÑARAN**



Tolosa eta Amsterdam artean sua zabalduko suhiltzailea, Lagunen lagun eta laguntzailea, Guregan biziko zara. Agur eta ohore

**Maite zaitugu,
Tolosa eta Amsterdameko familia.**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Eskurari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

TXOTXONGILOAK

- **Tolosa.** Titirijai jaialdiaren barruan gaur, Leidorren *Zeheng-He* 12:00-14:00; *Topic-en Las hadas de la bella* 11:00-14:40-18:00; *Topic-en Arbequina* 20:30-22:30; *El paseo del rey* kultur etxean; eta Gorosabel auditorioan *El viaje de Martín* 11:00-14:30.
- **Tolosa.** Titirijairen barruan, Aranburu jauregian *Suitzara Leihoa* erakusketa ikusi daiteke abenduak 4a bitarte.

DEIALDIAK

- **Lizartza.** Kultur astearen barruan gaur, 17:00etan ipuin kontaketa eta ondoren txokolate jatea; eta 20:00etan *Zaborra: guk sortu, guk kudeatu* hitzaldia kultur gunean.
- **Tolosa.** Zinema sozialaren bigarren saioa izango da, gaur. 19:30ean Leidorren *20 años* film laburra eta *Martxan* dokumentala eskainiko dituzte. Ondoren, eztabaida izango da.

Agurrak



Zorionak!
Yelena (Alegia). Atzo bi urte. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik. Berezik Josebaren partetik.



Zorionak Eneko!
Atzo ondo? Bi muxu handi etxekoan partez.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

Jexux Mari Irazu larrauldarrak Ilunberako txartela eskuratu du

Herenegun lortu zuen txartela Tolosan, Usabalen, izandako saioan; kiroldegia lepo bete zen



Irazu Tolosako saioan, pentsakor. GPUNTUA

Gpuntua Tolosa

Gpuntuako finalurrekoetako bigarren saioa izan zen herenegun, Tolosako Usabal kiroldegian. 1.500 bat pertsona izan ziren saioan Usabal leporaino betez.

Aitor Sarriegi, Unai Agirre, Iñigo Izagirre, Nerea Elustondo Beñat Lizaso, eta Jexux Mari Irazu bertsolariek saio ederra eskaini zuten, baina puntu gehien larrauldarrak lortu zituen, Ilunben izango den finalerako txartela lortuz.

Finalurrekoetako egitura eraberituaren arabera, banan-banan igo ziren oholtzara eta agurrak kantatu ondoren, kartzelako lehen ariketan hiru punturi erantzun zieten. Adina eta zahartzearen ondorioez jardun zuten. Hotz-hotzean era honetako saio batekin hasteak dauzkana arriskuak agerian geratu ziren, Aitor Sarriegiren potoa kasu. Erantzun eder batzuk ere izan ziren, Nerea Elustondorenak, adibidez.

Sarriegik, egindako akatsari bikain eman zion buelta ordea, puntukako ariketan Unai Agirriren laguntzaz. Horren gustura ari zi-

ren, osatu beharreko sei bertsoez gain, oharkabean zazpigarren bat ere kantatu zutela. Saiorik txalotuenetako bat izan zen.

Seiko motzeko ariketarekin jarraitu zuen saioak. Orokorrean distira handiegirik gabe joan zen, nahiz eta ale eder batzuk entzun ziren. Nabarmenezkoa, Arrasateko saioa eta Tolosako ordua arteko seiko motzeko bertsoaldi guztiak, ai mutil mainontzi doinuarekin kantatu ostean, Iñigo Izagirrek eta Aitor Sarriegik, *Mendian gora haritza* doinua hautatu izana. Freskotasuna ekarri zion ariketari eta bide batez, baita entzuleen belarrieei ere.

Ohartzeko eta finalurrekoetako ariketen egiturari esker, bigarren kartzelako ariketara heldu zen saioa. Bakarka hiruna bertso kantatzeko gaia honakoa zuten: «Azken ordu erdian hamabost aldiz begiratu diozu erlojuari». Hemen ere denetik entzun

zen: Irazuk, koskor bat kentzeko ebakuntza egin berri zioten aitari kantatu zizkion bertsoek, jendearen bihotzetara heltzea lortu zuten. Kartzelako ariketan kantzatzeaz, egon ezinik zain zeuden bertsolarien paperean abestu zuten Nerea Elustondok eta Unai Agirrek. Aldiz, parrandan ligatu ondoren, lehen zita egin eta neska zain zegoen Iñigo Izagirre. Azken honek, kartzelako ariketan gutxitan gertatu ohi den moduan, umoretik eldu zion gaiari. Jendek eskertu zuen hori, baita txalo zaparrada handia eskaini ere bertso bakoitzaren amaieran.

Honenbestez amaitu ziren arratsoko lan puntuagarriak eta bertsolarien sufrimenduak. Bukararako agurretan, egindako hankasartzei, lagunei edota entzuleei kantatu zieten bertsolariek. Hunkigarria zinez, Beñat Lizasok aitona zuten Joxe Lizasori eskainitako agurra.

Programazioa

28 KANALA

- **16:30.** Ur eta lur.
- **17:15.** Foofur.
- **17:30.** Tolosaldean Gaur.
- **18:00.** Kaxerna Gaztetxea.
- **18:30.** Esatea libre.
- **19:00.** Esatea libre (jarraipena).
- **19:30.** Tolosaldean Gaur.
- **20:00.** Ikusmira.

TXOLARRE IRRATIA

(107,6 edo www.txolarre.org)

- **11:00-12:00.** Tolosaldeko Ahotsa albistegia: Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatutako zinemaldi sozialari buruz hitz egingo dute, besteak beste.
- **12:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotsa Magazina: Elhuyar Fundazioaren eskutik zientziari eskainitako tartea.
- **13:00-13:30.** Lehiaketa eta disko eskainiak.
- **13:30-14:00.** Info 7 irratiko albistegia.
- **14:00-15:00.** Tolosaldeko Ahotsa Albistegia.
- **16:00-17:00.** Txingurrihotsak.
- **17:00-18:00.** Kabitik Plaza: Aukeran dantza konpainian aritzen diren Aritz Iglesias eta Ioritz Galarragarekin hitz egingo dute, Argentina eta Uruguaien egindako bidaiaz.
- **18:00-19:00.** Tolosaldeko Ahotsa Magazina.
- **19:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa Albistegia.
- **20:00.** Info 7ko albistegia.
- **21:00-22:00.** Zuria Beltzez.

<p>SOLAGÜEN ARDOAK</p> <p>2005. urteko ERRESERBAko ardoa</p> <p>58€ 6 botilako kutxa</p> <p>12 botilako kutxa 72€</p> <p>2008. urteko ardoa ONDUA</p>	<p>REMELLURI ARDOAK</p> <p>2006. urteko ERRESERBAko ardoa</p> <p>40€ 3 botilako kutxa</p> <p>80€ 6 botilako kutxa</p>	<p>BRUT NATURE MAINEGRA</p> <p>MENDABIAKO CAVA</p> <p>Mugeta: 100% uztar, 10% perillado, 10% charbonnay.</p> <p>LESTEN ONDUA: Hogei hilabete baino gehiago.</p> <p>ALKOHOL GRADUA: Bolumenaren %12 gutxi gorabehera.</p> <p>39€ 6 botilako kutxa</p>
<p>Erosi berriaren GABONETAKO ESKAINTZAN</p> <p>azaroaren 30a arte!</p> <p>Osatu zure saskia!</p> <p>943-30 43 45 denda@berria.info www.berria.info/promoak/denda Bidalketa gastuak doan</p>		<p>ALFAR OLIOA</p> <p>OLISA OLIO BIRJINA ESTR</p> <p>6 botilako kutxa 36€</p> <p>75cl 100% arbelkina</p>